

## **ERANTZUNAK HIRIGINTZA:**

### **Zure ustez, zein dira berotegi efektuko gasen isuriak eragiten dituzten Donostiako/Donostialdeko hiri ereduaren baldintzatzaile nagusiak?**

Alderdi orokorrak, hala nola, hirigintzaren eta garraioaren arteko disoziazioa edo ikuspegi orokorra izateko ezintasuna, udalekogiak diren ikuspegiengatik. Neurtzeko premia adierazi da, baina ondo neurtzekoa. Hiri eredia da, erabakiei erantzun diena, eta, batik bat, gizartearen jarraibideei.

Ikuspuntu horretatik, uste da aintzat hartu beharreko funtsezko alderdiak hauek direla:

- Egungo hiri ereduak ekartzen dituen mugikortasun eta garraio baldintzatzaileak eta berotegi efektuko gasen isurien garraioaren eragina funtsean.
- Energia eraginkortasuna eraikuntzan.

Ikuspuntu horretatik, zenbait alderdi aipatu dira:

- Eraikuntza ereduaren sakabanatzea hiriko zenbait eremutan, etxebizitzako pertsona kopurua jaitsi egin da zenbait eremutan. Zenbait auzoren trinkotasun falta, dentsitatea eta erabileren nahasketa aintzat hartuta. Aktoreen eta eragileen banaketa eta merkataritza zentroen presentzia hiriaren kanpoaldean: Garbera, Urbil, eta etorkizunean, Mercadona eta McDonalds. Lan eremuak egotea (jarduera ekonomikoaren poligonoak: Zuatzu, Igara, Miramon...) Ibilgailu pribatuaren joan-etorri handia dute. Gainera, kontuan izan behar da zerbitzu eta turismo hiria dela, banakako bitarteko motordunen sarbide handia duela eta mugak dituela gaitasun handiko garraioko irisgarritasunaren eskaintza (trenen arloan, batik bat).
- Eraikuntza parkearen antzintasuna. Eraikuntza energia eraginkortasunaren arloko neurriak abian jartzen hasi dira. Ekoordenantza efektu onuratsuak adierazi dira eta Administrazioak etxebizitzetan eta eraikuntzetan energia berriztagarrien sorkuntza garatzeko eta bultzatzeko esku hartzean dituen aukerak eta legearen arloko mugak jaso dira.

### **Hiri eredu horren ezaugarriak aintzat hartuta, hirigintzatik, zer jarduera eremutan izan daiteke berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko ahal handiagoa zure ustez?**

- Eskualdeko irakurketa eta lurraldeko gogoeta egiteko premia.
- Plangintzari ikuspegi global eta integral batetik ekiteko premia, eta ez ikuspegi sektorialetik.
- Hiri ekologiko irizpideak txertatzea hirigintza plangintzan, diseinutik bertatik.
  - Auzoetan hurbiltasun zerbitzuak erraztea. Sakabanaketa saihestea.
  - Hurbiltasun merkataritza erraztea, baita adinekoengan pentsatuta ere.
  - Trinkotasuna erraztea, mugikortasun premiak minimizatuz.
  - Energia eraginkortasuna eta eraikuntzen eta etxebizitzaren birgaitzearen aldeko apustu irmoa.
  - Hirigintza proiektu berriak geldiaraztea.
- Garraio politikak:
  - Proposatuta daude dagoeneko. Udalak pentsatu eta erabaki ditu. Proposatutakoa eta planifikatutakoa aztertu beharko da, eta horiek gauzatu edo aldatuz erantzun beharko da, hala badagokio. Trenaren arloko proposamenak.
  - Ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko premia.
  - Erdigunean errotazio aparkalekuak egin behar ote diren ala ez ebaluatzea.
  - Industria lurzoruen birdentsifikazioa eta garraiobide kolektiboaren irisgarritasuna.

**Ezagutzen al duzu emisioen bolumena (hirigintzaren arloan) zure jarduera eremuan?**

Oro har, ez. Benetako emisioak neurtzeko bitartekoak ezartzeko premia aipatu da.